

HAUR HEZKUNTZAKO GRADUA

2022/2023 ikasturtea

HARRERA-KO-FAMILIA EREDUAREN LANKETA ESKOLAN IPUINEN BITARTEZ

Egilea: Priscila Beitia Arrizabalaga

Zuzendaria: Jon Batti Kortazar Uriarte

Leioan, 2023ko maiatzaren 24an

AURKIBIDEA

1. Sarrera.....	3
2. Helburuak.....	4
3. Esparru teorikoa eta kontzeptuala.....	4
3.1. Familia definitzen.....	4
3.2. Familia eredu berriak.....	5
3.2.1. Harrera-familia.....	6
3.3. Familia eta Haur eta Gazte Literatura.....	7
3.3.1. Errealismo kritikoa.....	8
3.4. Harrera-familia gaur egungo Haur eta Gazte Literaturan.....	9
3.5. Literatura baliabide didaktiko gisa.....	10
4. Metodologia.....	11
5. Lanaren garapena.....	13
5.1. Ipuinen laburpenak.....	14
5.1.1. <i>Usoa, hegan etorritako neskatoa</i>.....	14
5.1.2. <i>Hau da hau nahaste borrastea</i>.....	14
5.2. Bi ipuinetan ageri diren harrerarekin lotutako adierazleak.....	15
5.2.1. <i>Usoa, hegan etorritako neskatoa</i>.....	15
5.2.1.1. “Hegan” terminoaren esanahia izenburuan.....	15
5.2.1.2. Gizarteak eraikitako ideiak liburuan.....	15
5.2.1.3. Iraganak markatutako bizimodu bat.....	16
5.2.2. <i>Hau da hau nahaste borrastea</i>.....	17
5.2.2.1. Aurkezpena.....	17
5.2.2.2. Familia.....	17
5.2.2.3. Josuren kezkak.....	18
5.2.2.4. Gurasoentzako orientabideak liburuan.....	18
5.3. Bi ipuinak konparatuz.....	19
6. Haur Hezkuntzako gela baterako diseinatutako esku-hartzea.....	21
7. Emaizak eta ondorioak.....	22
8. Erreferentzia bibliografikoak.....	28

HARRERAKO-FAMILIA EREDUAREN LANKETA ESKOLAN IPUINEN BITARTEZ

Priscila Beitia Arrizabalaga

UPV/EHU

Familia, haur baten ongizatea, babesa eta egonkortasuna bermatzen dituen pertsona multzo garrantzitsuena da. Denboran zehar, talde honek bilakaera handia izan du eta, egun, familia eredu aniztasuna zabala da. Hala ere, badaude guztiz ezagunak ez diren familia motak, adibidez, harrera-familiak. Eskolak, haurren bigarren agente sozializatzaile esanguratsuenak, familia guztien errealitatea kontuan hartu beharko luke ikaslego osoaren ongizatea bermatzeko. Gradu Amaierako Lan hau harrera-familiari buruzko definizioa emateko asmoz sortu da eta lan honetan proposaturiko materialen bitartez, eskolan familia mota hori lantzeko. Horrela, haurrei bideratutako literaturaz baliatuz, harrerako umeez esperimentatu ohi dituzten arazo pertsonal edo sozial jakin batzuk lantzeko eta ezagutzera emateko aurkezten da ikerketa.

Euskal Literatura, Haur eta Gazte Literatura, familia, harrera, proposamen didaktikoa

La familia es el grupo de personas más importante que garantiza el bienestar, la protección y la estabilidad de un/a niño/a. A lo largo del tiempo, este grupo ha evolucionado mucho y, en la actualidad, la diversidad de modelos familiares es amplia. Sin embargo, hay tipos de familias que no son del todo conocidas, como pueden ser, las familias de acogida. La escuela, el segundo agente socializador más significativo de los/as niños/as, debería tener en cuenta la realidad de todas las familias para garantizar el bienestar de todo el alumnado. Este Trabajo de Fin de Grado nace con la intención de dar una definición sobre la familia de acogida y trabajar este tipo de familia en la escuela a través de los materiales propuestos en el trabajo. Así, la investigación se presenta para trabajar y dar a conocer, a través de la literatura infantil, determinados problemas personales o sociales que suelen experimentar los niños y niñas acogidos/as.

Literatura Vasca, Literatura Infantil y Juvenil, familia, acogida, propuesta didáctica

The family is the most important group of people that guarantees the well-being, protection and stability of a child. Over the course of time, this group has evolved a great deal and, at present, the diversity of family models is wide. However, there are types of families that are not well known, such as foster families. The school, the second most significant socializing agent for children, should take into account the reality of all families in order to guarantee the well-being of all students. This Final Degree Project is born with the intention of giving a definition of the foster family and to work this type of family in the school through the materials proposed in the work. Thus, the research is presented to work and make known, through children's literature, certain personal or social problems that foster children usually experience.

Basque Literature, Children's and Young Adult Literature, family, foster, didactic proposal

1. Sarrera

Aurkezten den Gradu Amaierako Lan honek harrerako-familia eredura hurbilpen bat eskaintzen du alde batetik, eta ipuinen balio didaktikoa justifikatzen du, bestetik. Lan hau, Bilboko Hezkuntza Fakultatean eraman da aurrera eta honen helburu nagusia harrerako-familia ereduaren ezaugarriak lantzea da, lanketa horretarako material bezala ipuina erabiliz. Honetarako, nire azterketaren abiapuntutzat bi liburu aukeratu dira, hots; Patxi Zubizarretaren *Usoa, hegan etorritako neskatoa* (Erein, 2008) ipuina eta Agintzari gizarte-ekimeneko kooperatibaren *Hau da hau nahaste borratea* (Ediciones Beta III Milenio, 2017) liburua. Lanaren enborra, bi zatik osatuko dute; lehenengoa, liburuek barne hartzen dituzten eta harreraren ezaugarriak izan ohi diren adierazleen identifikazioak zein gogoetak; eta bigarrena, istorioen arteko konparaketak. Horrez gain, ikertzen ari garen familia ereduaren lanketa aurrera eramateko diseinatu den eta, era berean, Haur Hezkuntzako ikasle-talde batean garatu den proposamen didaktikoa azalduko da. Ildo beretik, egindako esku-hartze horretan eskuratutako emaitzak, hauen interpretazioekin batera jasoko dira. Azkenik, lanari, egindako ibilbide guztiaren ostean ateratako ondorioek emango diote bukaera.

Gaur egun, gure gizarte honetan dugun familia aniztasunaz nahiko kontziente garela uste dudan arren, askotariko familia motak txikitatik ezagutzearen garrantzia nabarmendu nahiko nuke. Aipatutako talde hau haur baten hurbilpeneko ingurunea dela jakinda, familiaren gainean dugun ezagutza ez da inoiz gehiegizkoa izango.

Nire kasuan, familia aniztasun horren baitan harrera-familia hautatzearen arrazoia, gaiarenganako hurbiltasuna izan da. Ni neu ere, egun, adoptatua naizen arren, harrera egoera bizi izan duen pertsona bat izanik, hau zer den, nola eman daitekeen eta haurrak berak prozesua nola bizi dezakeen biltzen duen literatura aztertzea aukera paregabea iruditzen zait. Bestalde, haurtzaroan ipuinek duten lekua kontuan izanda, bitarteko honetaz baliatu nahi izan dut gai konplexua izan daitekeen errealitate hau Haur Hezkuntzako ikasleekin jorrazteko. Haien ulermen mailara egokitzen den istorio bat zehazki haientzat doitzea edozein gai barneratzeko giltza izan daiteke eta, kasu honetan, harrerako-familia ezagutzeko bidea.

2. Helburuak

Lanaren atal honetan, hau osatzen duten alderdi guztien bidez eskuratu nahi diren helburuak adieraziko dira. Xede hauek, errealak eta lorgarriak izateko asmoarekin ezarri dira, baina, batez ere, ikerketa honetan eta aplikazio didaktikoan aztertzen diren atalekiko koherenteak izateko asmoz.

Helburu nagusia

- Harrerako-familia ereduaren alderdi garrantzitsuenak ezagutzea eta lantzea eskolan, honetarako, bitarteko nagusi gisa ipuina erabiliz.

Helburu espezifikoak

- Literaturak baliabide didaktiko bezala duen indarra egiaztatzea, proposamen bat praktikara eramanda eta emaitzak aztertuta.
- Harrera-familiaren zenbait ezaugarri ikusaraztea eta definitzea bi ipuinetan oinarrituta.
- Harrera-familia literaturan nola irudikatu edo errepresentatu ohi den aztertzea.
- Haur Hezkuntzako bigarren ziklorako esku-hartzea proposatzea marko teorikoan jasotako eta azaldutako informazioa kontuan izanda.

3. Esparru teorikoa eta kontzeptuala

3.1. Familia definitzen

Jose Luis Meza eta Ruth Milena (2016) autoreen hitzetan, familia gizabanakoa gizartean eta kulturen sartzen duen gizarte-instituzioa da. Asmo hori gauzatzeko, familiak zenbait funtzio betetzen ditu gizarte garaikidean, eta funtzio horiek gizakiari laguntzen diote bizitzaren etapa guztietan garatzen eta ongizatea lortzen. Bestalde, Benito Baranda-k (2013) aipatzen duenez, familian, krisietatik, desberdintasunetatik, asmatzeetatik eta desegokitasunetatik ikasten da, lotura egonkorak eraikitzen dira, eta, oinarri horren gainean, giza garapena eta giza gaitasunen indartzea errazten duten gizarte orekatuak eraikitzen dira. Familiari esker, seme-alaben oinarrizko behar biopsikologikoak, behar sozialak, behar ekonomiko-materialak eta gizarte-egitura eta -sistemekin harremanak nahiz bitartekaritza izateko beharrak ase daitezke.

Martín-Cala Martín eta Minerva Tamayo-Megret (2013) autoreek diotenez, familiako kideek taldearen parte izatearen sentimendu berezia eta lotura afektiboak garatzen dituzte, beste giza talde batzuekin alderatzen ez direnak. Familiak egituraketa psikologiko desberdina du, konnotazio berezia gizakiarentzat, eta konnotazio horrek haren jardura, komunikazioa, afektibitatea eta jarrera baldintzatzen ditu. Gainera, agente sozializatzailer horrek, ezaugarri eta baldintza jakin batzuk dituen pertsona-talde baten baitan integratzen du haurra. Logikoa da, beraz, talde edo komunitate zabalago batean sartzeko eta integratzeko testuinguru gisa aipatzea.

3.2. Familia eredu berriak

Alicia Muñoz-en (2006) hitzak oinarri hartuta, ez da ahaztu behar familia pixkanaka aldatuz joan dela, eta horrek gaur egun ezagunak diren familia ereduak sortu dituela. Bilakaera hori haurtzaroaren kontzeptuari berari eta familiak seme-alaben garapenean duen zereginaren ikuspegiari eragin dioten aldaketa sozial eta historikoekin batera gertatu da. Haurrak zainketa, babes eta estimulazio egokiak izan behar dituzten pertsonatzat hartzen dira, eta garapenaren alderdi guztietan (fisikoak, kognitiboak, komunikaziokoak, linguistikoak, sozialak eta emozionalak) izugarritzko garapen-bizkortze baten mende daude. Aguado autoreak (2010, 131. or.) uste hori indartzen duen ondorengo ekarpena egiten du:

“Gaur egun, familiaren kontzeptualizazio berriak betetzen dituen funtzioekin zerikusia handia du. Horretaz gain, testuinguru kulturalaren eta bere bizitza-etaparen arabera ere, holako edo halako ezaugarriak nagusituko dira”.

Claudia Rodríguez (2020) egileak, hiru teoriatan azaltzen du familiak gaur egungo definiziora iritsi arte jasan dituen aldaketak. Indibidualizazioaren teoriak, familiara egokitzean, gizakiaren biografia eredu eta segurtasun kontserbadoreetatik nola aldentzen den adierazten du. Ikuspuntu horren arabera, familiak erabakitzeko ahalmen handiagoa du, baita tradizioaren botere-kopuru handia ere. Horrela, familia-portaeren pribatizazioa eta aniztasunarekiko tolerantzia gertatzen dira, iraganeko familia-linealtasuna ahulduz. Teoria horrek azalduko luke gaur egungo familia-aniztasunaren hazkundera eta portaera indibidualizatuagoetarako joera.

Rodríguez-en (2010) hitzekin jarraituz, bigarren teoria genero-ikuspegiari dagokio. Ikuspegi horretatik emakumeak familia-dinamikan duen zeregina (rolak, baliabideen eta zereginen banaketa, botere-harremanak, etab.) aztertzen da. Ikuspuntu horrek emakumeari buruzko diskurtsoa eremu guztietan berreraikitzea proposatzen du, eta benetako genero-berdintasuna aldarrikatzea. Inés Alberdi-ren (2003) ustez, ikuspegi feministak zeregin garrantzitsua izan du familiaren aldaketa bultzatzeko, postulatu tradizionalak kritikatzeko eta bi generoen arteko berdintasun handiagoko testuinguruetara iristeko gizarte-aldaketa bizkortzeko.

Hirugarrenik, Rodríguez-ek (2010) dioenez, familia-zikloaren teoriak familia-irudi berriak azaltzen ditu, eta bizi-zikloaren etapa bakoitzean erakusten du interesa. Familia ezin dela modu orokorrean azertu ematen du aditzera, sorkuntza-efektuaren eta familia dagoen fasearen arabera delako. Luis Sánchez (2019) autorearen arabera, familia eredua edozein dela ere, guztiak hedapen-ziklo batetik eta uzkuradura-ziklo batetik igarotzen dira. Haren ustetan, familiaren garapena dinamikoa da, baina ez du zertan lineala izan, kideen bizi-proiekzioen eta testuinguruaren beraren bilakaeraren arabera delako.

3.2.1. Harrera-familia

Lan honen gaia kontuan izanda eta honek barne hartzen duen familia eredua harrera-familia izanik, garrantzitsua da honen ezaugarri nagusiak ezagutzeko helburuarekin, definizio zehatz bat ematea:

Familia hauek umeak bere gunean babesten dituzte, behin-behinekoz edo era iraunkorrean. Bitartean, Gizarte Zerbitzuak, guraso biologikoek haien arazoak konpontzeko lanean aritzen dira. Horrela, abandonatuak, tratu txarrak izan dituzten umeak edo une puntualetan laguntza behar dutenak, familia orekatu batean bizi daitezke, instituzionalizazioa eta adopzioa planteatu gabe. (Aguado, 2010, 135. or.)

Aurreko ideiarri jarraiki, aipatzekoa da, harrera-familiaren osaketa eta honek bere baitan hartzen duen prozesua ez dela beti berdina izaten, izan ere, egile berak horrela azaltzen du honako ideia hau:

“Egoeraren arabera, Espainiako legediak hainbat aukera eskaintzen ditu: harrera aurre-adoptiboak, familia zabalaren barnean (aitona-amonak, osaba-izebak, eta abar) edo beste batzuetan denborarekin guraso biologikoekin bueltatzeko aurreikuspena izaten da” (Aguado, 2010, 135. or.).

Azkenik, azaldu berri denarekin lotuta, umeak bigarren familia batera igarotzearen arrazoiaren artean, ohikoenak, jatorrizko familietan seme-alabari zuzenean eragiten dioten arazoak izan ohi dira, esaterako:

Hezkuntza maila oso baxua, langabezia, arazo psikologikoak, drogazaletasunak, tratu txarrak etab. Harrera-familiak mota ezberdinekoak dira, baina sarri askotan seme-alaba biologikoak dituzten bikoteak izaten dira. Familia horiek haurrak zaintzeko ardura eta hezitzeko gogoia eskaintzen dute. Umeei dagokienez, hasierako momentuetan arazo fisiko, psikologiko edota garapenekoak izaten dituzte. Baina denborarekin, beste familia batean bizi izateak gehienetan onurak ekartzen dizkie beren garapen fisiko, emozional, sozial, intelektualean, bai eta eskolako emaitzetan ere. (Aguado, 2010, 135. or.)

3.3. Familia eta Haur eta Gazte Literatura

Literaturaz hitz egin ahal izateko, beharrezkoa da literaturaren esanahia ulertzea eta termino honek bere baitan hartzen dituen ezaugarriak zehaztea, hots:

Haur eta Gazte Literatura, haurrentzat edo gazteentzat idatzia izan ala ez izan, haientzat atsegina den testu multzoa da. Testu multzo horrek, haurrei zuzenduta egonik, hizkera berezia izan behar du. Definizioaren bigarren partean dago gakoa: nola erabili edo neurtu hizkera berezi hori haurren kasuan, hizkuntz gaitasun urria dutela kontuan izanda (Etxaniz, 1997, in Euskaltzaindia, online).

Zubeldia autoreak (2000) haurrentzat edo helduentzat sortutako kontakizunak, horiek idazteko erabilitako hiztegiarekin erlazionatzen ditu:

Haurrentzat idazten denean, normalki klabe berezi batean idazten da, irakurlearen adina eta istorioa jasotzeko duen ahalmena gogoan hartuz. Gerta daiteke haurrentzat edo gazteentzat idatzitako liburu batzuk helduentzat ere interesgarriak izatea edo alderantziz. Baina helduentzat idatzitako liburua ez da derrigorrez umeentzat ere egokia eta interesgarria izan behar. (151. or.)

Ane Arce-ren (2020) aburuz, kultura guztietan literatura bizitzaren zentzua aurkitzen laguntzeko eta munduari buruzko galderak erantzuteko umeentzat eskuragarri egiten saiatu dira. Ildo beretik, Bruno Bettelheim (1994) autorearen hitzetan, hezkuntza zentzu hori aurkitzera bideratu behar da gurasoen laguntzarekin eta literaturan islatzen den ondoriotasun kulturalaren bidez. Azken egile honek dioenez, haur literaturak hiru funtzio betetzen ditu. Lehenengoa, belaunaldi berriei gizakiek mundua ulertzeko asmoz sortutako sinbolo, irudi eta mitoak transmititzea. Bigarrena, forma narratibo, poetiko eta dramatikoaren ikaskuntza garatzea eta, hirugarrena, umeei erakustea fikzioa barne mundu eta kanpoko errealitatearen erdiko gunea dela, non beste pertsona bat izan zaitezkeen norbera izateari utzi gabe.

Haurrei eta nerabeei bideratutako literatura horren inguruan hitz egiten du Julia Villa (2022) autoreak ere, izan ere, bere ustez, haurrentzako eta gazteentzako literaturak familia ereduaren aniztasuna erakusten du. Batzuetan errealitatea islatzen du eta beste batzuetan ezohiko egoerak normalizatzen ditu; hala ere, fikzioaren laguntzarekin, egoera horiek gehiengo batek onartu egiten ditu. Egile beraren (2022) arabera, haurrentzako liburuak helduek idazten dituzte, eta, nahita edo nahi gabe, munduaz duten ikuspegia aurkezten diete haurrei. Hezkuntza-balioa dute, eta aprobetxatu egin behar da, ispilu bihur baitaiteke familiaren errealitatea ikusteko edo familia-mota berriak islatuta ikusteko.

3.3.1. Errealismo kritikoa

Haur eta Gazte literaturarekin jarraituz, XX.mendetik aurrera arlo honetan aldaketa eman zen. Une horretatik aurrera, irakurleari eskaintzen zaizkion ipuin nahiz liburuak beste ikuspegi batetik idatzita egongo dira. Xabier Etxaniz-ek (2011) baieztatzen duenez:

1980ko hamarkadan HGLan, estilo eta gai aldetik, berrikuntza handiak gertatu ziren. Nazioarte mailan, gaietan eta horiek tratatzeko moduan ere aurrerapausu batzuk eman ziren. Horrela, irakurleari bere irizpidea edo autonomia eta askatasuna erabakiak hartzerakoan garatzeko aukera ematen zitzaion, hots; irakurlearen nortasuna, autonomia bultzatzen da. Irakurleak idazlanen bidez errealitatea, dituen ertz eta ikuspegi ezberdinetatik, ezagutu dezala, ondoren bere irizpidea gara dezan. (41. or.)

Gainera, Euskal Herrira ere iritsi ziren aldaketa hori jasandako lan desberdinak, hala:

Idea eta tematika horiek 1980ko hamarkadan heldu ziren euskal letretara, eta handik aurrera etengabe haziz joan da errealismo kritikoaren barruan koka daitezkeen idazlanen kopurua. Egungo gizarteko arazoen aurrean, umeen jokabidea azaltzen edo egoera horietaz gogoeta egin dezaten idatzitako literatur lanak izan dira. Maitasuna, pobrezia, ekologia edo bakardadea bezalako gaiak agertzen dira horrelako liburuetan. (Etxaniz, 2011, 41. or.)

3.4. Harrera-familia gaur egungo Haur eta Gazte Literaturan

Laura Blanco egileari (2015) jarraiki, esan liteke Haur Literaturari buruz oraindik ere hutsune handia dagoela familia eredu berrien irudikapenari dagokionez. Haurrek liburuetan behar adina adibide ez izatearen ondorioz, familia-egitura batzuk arraro ikusten dituzte. Autore batzuk, ordea, haien lanen bidez familia-konfigurazio tradizionaleraino gain, beste familia-eredu batzuk ere badirela erakusten dute eta, aldi berean, XXI.mendeko familiak haurrei ezagutarazteko modu erakargarri bat eskaintzen dute.

Nieves Gallego autoreak (2015) dioenez eta aipatutakoari erreferentzia eginez, garrantzitsua da azpimarratzea familia eredu berri horiek literatura-lanetan islatzen direla eta hartzaileengana iristen direla, beti ere, aurreiritzirik gabeko eta jarrera konprometituko argitaletxeak horrelako proposamenak aurrera ateratzeko prest egonez

gero. Gero eta gehiago dira familia-aniztasuna oinarri hartuta, errealitatetik hurbil dauden istorioak lantzen dituzten argitaletxeak.

Aipatutakoaren harira, azaldutako errealitate hau hurbiletik jorratzen duten ipuinen artean, bi nabarmenduko nituzke. Lehenengoa, Patxi Zubizarreta idazlearen *Usoa, hegan etorritako neskatoa* (Erein, 2008) ipuina. Idazleak, gosetearen eta gerraren ondorioz, Afrikatik Euskal Herrira etorritako Usoa izeneko neskato baten istorioa kontatzen du. Protagonista, bere familia biologikoa bere jaioterrian utzi ezker, beste familia batekin bizi da, familia euskaldun batekin. Istorioak Usoak bere herrialdearekin duen lotura kontatzen du eta bi familia izatea nahiz bi familiak maitatzea posible dela erakusten du.

Bigarren adibidea, Agintzane Gizarte Ekimeneko Kooperatibaren familia-harrerari buruzko *Hau da hau nahaste borrarstea* (Ediciones Beta III Milenio, 2017) ipuina litzateke. Aurkezten den liburu honek, harreran dauden hurrek izan ohi dituzten sentimendu, zalantza eta ardura desberdinak ezagutaraztea du helburu. Era berean, ume hauen familiek prozesua aurrera eramateko nolabaiteko euskarriren bat izan dezaten hausnartzea ere badu xede ipuinak. Bi helburu hauek lortzeko, zenbait jarduera, ideia nahiz galdera planteatzen dira liburuaren bukaeran, honek, aldi berean, haurraren eta familiaren arteko interakzio-harreman momentuak eskaintzen dituelarik.

3.5. Literatura baliabide didaktiko gisa

M^a Carmen Morón autoreak (2010) esan bezala, haurren literatura-lanen balio handienetako bat irakurle txikiari bere pentsamendu kritikoa eta gogoeta-gaitasuna osatzen laguntzen dioten kontzeptu edo gai garrantzitsuak aurkeztea da: heriotza, denbora, erlijioa, adiskidetasuna, autoestimua etab. Honek, modu atsegina batean, oinarritzko nozio horietara lehen hurbilketa bat egiteko aukera eman dezake. Horrez gain, literaturaren bidez ikas daiteke egoerak ebaluatzen, jarrerak balioesten eta ondorioak aurreikusten eta hortaz, ikasleek pertsonaien jokabideak epaitzeko gaitasuna garatzen dute, haien balioetan eta bizipenetan oinarrituz. Literaturaren onura handienetarikoa adimen emozionala garatzea litzateke, honetarako, esanguratsuak diren gaiak aurkezteztuta.

Cristina Gema Fernández idazleak (2010) aipatzen duenez, lehenengo urteetatik, haurrak bere irudimenari egiturak lortzen eta bere sormena indartzen laguntzeko tresna bat izan behar du, ipuina bezalako tresna bat. Material hau funtsezkoa da haurraren esparru pedagogiko eta hezigarrian, entretenimendua, gozamina, dibertsioa eta lasaitasuna eskaintzen dizkio, mundua eta bere pertsonaiak ezagutzen laguntzen dio. Autore beraren (2010) hitzetan, ondo kontatutako istorio batek umeak kulturarekiko duen ulermena garatu eta bere ezagutza zabal dezake. Kontakizunak entzuteak, mundua eta pertsonak haien artean nola erlazionatzen diren ulertzen laguntzen dio haurrari.

4. Metodologia

Lan hau aurrera eramateko jarraitu den metodologia kualitatiboa izan da. Metodologia horretan, hainbat iturri zientifikotan bilatutako informazioa eta eduki ugariaren (liburuak, artikulak, iritziak eta aldizkari digitalak) azterketa sartzen da. Lanaren enborra gai nagusi bezala harrera duten bi libururen azterketak osatzen dutenez, ezinbestekoa izan da hiriko liburutegi publikoetara bertaratzea. Horrez gain, Bizkaiko Campuseko liburutegira jotzea ere funtsezkoa izan da, idatzizko lan hau teorikoki uztartzeko informazioa eskuratzeko liburuetat baliatzeko.

1. Lanarekin hasteko lehenengo pausua txostenaren nondik norakoak zehaztea izan zen, atal bakoitza eta honetan jorratu beharrekoa antolatuz. Honetarako, tutorearekin bildu eta lanarekin lotutako planteamendu desberdinak plazaratu dira, ideien kontraste horretatik txostenaren behin behineko eskema osatu den arte.
2. Hurrengo eginkizuna lanaren enborra osatzen duten bi liburuak eskuratu eta bakoitzaren lehenengoko irakurketa bat egitea izan da.
3. Kontzeptu, termino eta azalpen teorikoak osatzeko informazioa kontrastatzea izan da hirugarren pausua, hau da, marko teorikoa sortzea. Informazio hau lortzeko online iturri ezberdinetaz baliatzea (Google Académico, aldizkari digitalak, hiztegiak etab.) nahiz liburu fisikoak aztertzea izan da betebeharr nagusia.

4. Hurrengo zeregina, lanaren enborra osatzen duten liburuen irakurketa sakon bat egitea izan da, ostean, ikerketarako adierazle zehatzak hautatzeko. Aukeratutako ikerketaren abipuntua bi liburuek barne hartzen duten gaia da, hots; harrera-familia.

Azterketa hau modu egoki batean gauzatu ahal izateko, Macarena García (2012) autorearen lan batean oinarritu gara. Egile honek, "Y vivieron felices para siempre: literatura infantil para niños y niñas adoptados" argitalpenean, haurren adopzioa gai nagusi duten liburuek izan ohi dituzten ezaugarrien inguruan hitz egiten digu. Nahiz eta nire lan honetan jorratzen den familia mota harrerakoa den, autoreak bere lanean nabarmendutako zenbait puntu (familiako kideentzat aholkuak liburuan edota hegazkinaren sinbologia) izango dira, beste batzuen artean, aztertu eta azalduko direnak. Haren hitzetan, paradigma kulturalaren aldaketak adoptatuak izan diren haur horiei ematen zaizkien azalpenekin du zerikusia. Azken hamarkadan Espainian argitaratu diren adopzioari buruzko liburu gehienetan umeei azalpen desberdinak ematen zaizkie, zergatik jaio ziren hain urrun edota beltzak izanik nolatan izan daitezkeen kide zuriz osatutako familia baten parte, besteak beste. Honek, haur literaturaren funtzio hezitzailean pentsatzera garamatza, esaterako, ume adoptatuen istorioak jasotzen dituen literaturak, odol-loturarik ez dagoen lekuetan ahaidetasuna eraikitzeke asmoa du.

Macarena García autoreak (2012) bere argitalpenean aipatzen duen puntu bat lanera ekarriz, ezaugarri hori aurrerago aztertu eta alderatuko diren bi liburuetako batean bilatu daiteke. Egileak azaltzen duenez, Editorial La Galera saileko ipuinek, itxieran, jatorrizko herrialdeari buruzko datuak eta adopziozko familientzako aholkuak dakartzate. Testu horietan azaltzen denez, kontakizun horien helburua haurrei beren adopzioa kontatzea da, haiek protagonista izango diren ipuin eran. Adibide hau, Agintzari elkartearen *Hau da hau nahaste borrastea* (Ediciones Beta III Milenio, 2017) liburuan ikus genezake, izan ere, honetan, gurasoentzako orientabideak eta seme-alabekin elkarrizketa desberdinak abiatzeko galdera ugari ageri dira ipuinaren azken orrialdeetan. Horrez gain, irakurleari bere adopzio-familiaren nahiz familia biologikoaren marrazkiak egiteko edota bere arduren zerrenda bat sortzeko espazioak ere eskaintzen dizkio. Ipuina entzun edo irakurri ostean, istorioarekin identifikatuta sentitu daitezke, bai umea, eta bai familia. Esan genezake, beraz, ipuinak, horretaz baliatuz, haurrari eta familiari haien sentimenduak azaleratzeko zein adierazteko aukera eman nahi diela.

Aztertuko den bigarren liburuakin bat datorren adierazle bat ere aurkitu dezakegu autore horren idatzian. Haren hurrengo ekarpena gai bezala hartu duen familia-moten liburuek izan ohi duten sarreren ingurukoa da. Hark dioenez (2012), adoptatuak diren haurren istorio gehienak umearen jaioterrira egiten den bidai batekin hasten dira. Honek, hegazkina istorioetako ezinbesteko elementu bilakatuko luke, izan ere, sabela ordezkatzeko du. Zerutik iritsi den haur hori berezia da ez delako gainontzeko umeak bezala iritsi mundura, baizik eta hegan.

Aipatu berri dugun ideia horrekin bat dator *Usoa, hegan etorritako neskatoa* (Erein, 2008) ipuina. Izenburuak berak ulertzera ematen duen bezala, liburu honetako protagonista ere hegan datorkigu beste herrialde batetik. Esan beharra dago, zehazki istorio honetan, hegazkina garrantzi handiko elementua dela, hark egiten baitu, nolabait, Usoaren jatorrizko herrialdearen eta Euskal Herriaren arteko konexioa. Aldi berean, neskatoaren familia euskaldunaren lehenengo topagunea ere bada.

5. Lanaren atal honetan, esku-hartze didaktikoa diseinatu eta gauzatu da, esparru teoriko eta kontzeptualean azaldutakoa indartzeko. Proposamen hau garatzeko, jorratutako bi liburuen artean bat aukeratu eta Haur Hezkuntzako ikasle-talde batentzat egokitu da. Hautatutako ipuina *Usoa, hegan etorritako neskatoa* (Erein, 2008) izan da eta esku-hartzea hiru urteko ikasle-talde batekin eraman da aurrera graduko azken praktikaldian.

6. Azkenik, bildutako informazio zientifikoan nahiz egindako proposamen didaktikoan oinarrituta, emaitzak eta ondorioak atera dira.

5. Lanaren garapena

Lanaren atal honetan bi ipuin sakonki aztertuko dira, honetarako, hiru azpi-atal bereiztuko direlarik. Lehenengo atala, ipuinen laburpenek osatuko dute, hau funtsezkoa baita istorio bakoitzeko ildo edo puntu esanguratsuenak biltzeko eta ostean azalduko diren adierazleen jatorria ulertzeko. Bigarren atalean, harrerarekin lotu genitzakeen eta bi istorioetan identifikatu diren ezaugarriak jasoko dira, hauen inguruan hausnartuko da, usteak justifikatuz eta arrazoiak emanez. Azken azpi-atalean, bi ipuinak konparatuko

dira, izan ere, nahiz eta biek harrera-familiako haurren errealitatea kontatzen diguten, errealitate horretako faktore batzuk antzeko modu batean garatzen dira, baina, beste batzuk, desberdin islatuta daude.

5.1. Ipuinen laburpenak

5.1.1. Usoa, hegan etorritako neskatoa

Usoa Afrikan jaio eta bizi zen neskato protagonista da. Bere amak, Afrikako herrialdea pairatzen ari zen gerra larria ikusita, Euskal Herrira bidali zuen hegazkinez, bertan etorkizun hobeagoa izango zuelakoan. Euskal Herrira iristean eta neskatoa bakarrik ikustean, hegazkineko pilotuak, hartaz arduratuta eta liluratuta, bere etxera eraman zuen, honela, neskatoa familiako kide berria bilakatuz. Nahiz eta protagonistaren berezko izena Kasai den, guztiek Usoa deitzen diote, hegan etorri izanaren harira. Egun, Usoak, ikaragarri maite dituen bi familia ditu, Afrikakoa eta hemengoa.

Ipuinaren ildo nagusia istorioak metafora gisa txertatzen duen alderaketa bat da. Irakasleak eskolan kukua txoriaren (migratzailea den hegaztia, udaberrian Afrikatik datorrena) bizimodua kontatzeko moduak, Usoa atsekabetuta eta goibel uzten du, Afrikako amak ez zuela kukua txoriak bezala jokatu iruditzen bait zaio. Hala ere, berak argi du bi ama eta, beraz, bi familia dituela.

5.1.2. Hau da hau nahaste borrastea

Josu zortzi urteko mutiko bat da, oso gustoko du futboleko jolastea eta bere ametsa lehen mailako ekipo batean jokatzeko da. Haren guraso biologikoek nahiko arazo larriak dituztenez, ezin dute mutikoa zaindu, hori dela eta, arazoei irtenbidea bilatu bitartean, Patxi, Maite, Xabi eta Iratirekin bizi da, bere harrerako-familiarekin. Protagonista triste dago, guraso biologikoak ez baitira hilabete horretan adostutako bisitara bertaratu. Bere kezka eta buru hausteek, hurrengo egunean duen matematikako azterketako birpasoa erabat zaildu diote. Ez du harrerako-familiarekin hitz egin nahi, haiek pentsatuko ote dutenaren beldur delako. Azterketa eguna iritsi da, baina egoerak gainez eginda, Josuk eztanda egin du.

5.2. Bi ipuinetan ageri diren harrerarekin lotutako adierazleak

5.2.1. *Usoa, hegan etorritako neskatoa*

5.2.1.1. “Hegan” terminoaren esanahia izenburuan

Izenburuak, liburua eskuetan hartu bezain laster, informazioa dakar berarekin. Azkar ondorioztatu daiteke nonbaitetik beste nonbaitera iritsitako neskato baten inguruan hitz egingo duela. Hala, narrazio honek, Afrikan jaio eta Euskal Herrira etorritako neskatila baten bizitza biltzen du. Hasieratik jakin daiteke neska baten etorrerari buruz hitz egingo dela eta etorrera hori ohikotasunetik aldenduta dagoela, desberdina dela.

Hegazkinak baita, esanahi garrantzitsua du istorio honetan. Ipuinean azaltzen da Usoak bidaiaria luzea egin behar izan zuela bere jaioterritik bizileku berrira iritsi arte, hau harrera bezalako prozesu luze baten isla gisa har daitekeelarik. Liburuan ez da zehatz mehatz prozesu hau nola ematen den azaltzen, irakurleen adina kontuan izanda, informazio eta, ziurrenik, testu gehiago sartu beharko litzatekeelako ulergarri egiteko. Hala ere, kanpo faktore (gerra) baten ostean, dena aldatuko duen prozesu luze bat hasten dela ikus daiteke eta, prozesu horrek hartzen duen denbora tartea, hegazkineko ibilbide luzeak errepresentatzen du.

Esandakoaz gain, hegazkinak esanahi handia du narrazio honetan, hori baita neskatilaren eta bere familia berriaren topaketa eragiten duen espazioa eta, horrenbestez, kontakizunaren garapena ahalbidetzen duen elementua:

“... aireportuan ez zenuen osaba topatu, baina zurekin liluraturik, hegazkinaren pilotuak berak ekarri zintuen etxe honetara, eta hori duzu orain hemengo aita”
(Zubizarreta, 2008, 28. or.)

5.2.1.2. **Gizarteak eraikitako ideiak liburuan**

Nobela honetako istorioa Usoaren irakasleak bere ikasleei azaldutako gai batetik abiatzen da. Modu gogorrean deskribatzen die umeei Kukua txoriak izan ohi duen jarrera, hegazti honek bere kumeak zaindu eta hezi beharrean, arraultzak beste txori batzuen habietan jartzen dituela azaltzen baitie. Honek, nolabait, askotan, haien seme alabak harreran ematen dituzten guraso biologikoen inguruan izaten den usteari egiten dio erreferentzia. Uste hau denboraren joanarekin desagertuz doala dirudien arren eta

horri buruz hitz egiten denean familia biologikoa gutxiesteko asmorik egoten ez den arren, gizarte mailan eraikitako ideia bat da. Uste horrek, haien haurren heziketa nahiz babesa beste familia batzuen ardurapean uzten dituzten familiak hartuko lituzke barne.

Patxi Zubizarretak ere horrela azaltzen du azken kontzeptu hori, izan ere, irakasleak zeharka esandakoaren ondorioz, Usoa minduta sentitzen da. Zuzenean pertsonaia nagusiaren amari erreferentziarik egiten ez badio ere, hark horrela interpretatzen du. Horrek, aurretik azaldutakoarekin izango luke lotura, hau da, neurri batean bada ere, sentimendu horren eragilea gizarteak izan ohi duen pentsamenduarekin erlazionatuta egongo litzateke:

“Eta andereñoak gero esan du:

-Kukua bihurria da, alproja eta aprobetxategia. Bere umeak zaindu eta maitatu beharrean, bere arraultzak txori txikien habietan ipintzen ditu...” (Zubizarreta, 2008, 28. or.).

“... zure hango ama ez da kukua bezalakoa. Edo bai, baina bere arrazoiak izango zituen egin zuena egiteko... Eta bihar hori galdegingo diozu andereñoari: nork ote daki kuku amak zergatik egiten duen egiten duena? Beharbada bere arrazoiak izango ditu” (Zubizarreta, 2008, 28. or.).

5.2.1.3. Iraganak markatutako bizimodu bat

Egun batetik bestera, bere jaioterria eta familia atzean utzita, ezagutzen ez duenari aurre egin behar dio Usoak. Inguruan gertatzen ari dena ulertzeko oraindik txikia izanik, familia berri bateko kide izatera igaro behar da. Ordura arte ezagututako bizimodu, hizkuntza edota kultura aldaketan murgildu behar da protagonista, nahi edo ez nahi. Afrikako amaren baliabide faltaren ondorioa errepresentatuko luke ekintza horrek eta, aldi berean, alabari bigarren bizimodu bat emateko nahia.

Testuak eskaintzen dituen datuekin, bi herrialdeen arteko ezberdintasun nabariaz jabetu gaitzke. Alde batetik, Afrikako gerra, sufrimendua eta txirotasuna ikus daitezke eta, beste alde batetik, hemengo bizi kalitatea. Bi errealitate guztiz desberdin diren arren, neskatoa lehenengo errealitate horretatik igaro behar izan da bigarren errealitate horretara iristeko. Modu batean edo bestean, eraikiz joandako nortasunaren parte da

iraganean bizitakoa. Horrek azalduko luke Usoak bere afrikako familia maitasun osoz gogoan izatea. Neskatilak argi du bi ama dituela, berak “hango ama” eta “hemengo ama” deitzen dienak. Sentimendu hau harreran dauden hainbat umetan aztertu daiteke. David Poveda, M^a Isabel Jociles eta Ana M^a Rivas (2011) egileek adierazten dutenez, gehienetan ez da harrerako-familia jatorrizko familiagatik ordezkutzen; aitzitik, seme-alaben senide biologikoekin kontaktua mantentzen da eta horren ondorioz, ahaidetasun anitzeko egoerak sortzen dira, aukeratutako senideak berdintasun-plano ez-baztertzaille batean birkokatuz.

5.2.2. *Hau da hau nahaste berrastea*

5.2.2.1. Aurkezpena

Liburuak hasieratik mutikoa, haren ingurunea eta haren bizimodua aurkezten dizkigu. Irakurketan murgiltzearekin batera jakin dezakegu zein den protagonistaren egoera, deskribapen nahiko sakona eskaintzen baitigu idazleak. Atal honetan, Josu bere harrerako-familiarekin bizi dela azaltzen zaio irakurleari eta, baita, hilabeteen behin bere familia biologikoarekin bisitak izaten dituela. Nahiz eta protagonista harreran egotearen arrazoi zehatza azaltzen ez den, jakin dezakegu egoera honen atzean zergati bat dagoela, autoreak “arazo nahiko larri” bezala adierazten duena.

5.2.2.2. Familia

Kasu gehienetan, familiak haur baten bizitzan duen funtsezko eginkizunaren jakitun gara. Istorio honetan bi familiari buruz hitz egiten zaigu; familia batek protagonista hazi eta zaintzeko lana betetzen du, eta bestea, berriz, deskribatutako egoera eragin duten arazoak konpontzen saiatzen da. Batetik, Antonio eta Marga aurkezten zaizkigu Josuren guraso biologiko gisa, eta bestetik, Patxi, Maite, Xabi eta Irati, mutikoaren harrera-familiak hitz egiten zaigu.

Kontakizunari esker, harrerako-familiaren eta familia biologikoaren artean nolabaiteko lotura bat badela ondorioztatu daiteke. Lotura nagusiak Josuri egingo lioke erreferentzia, baina, horrez gain, bi familien arteko harremana badela ere jakin daiteke, hilean behin protagonista bere harrerako-familiarekin joaten baita familia biologikoarekin izaten dituen bisitetara. Antoniok eta Margak (guraso biologikoek) izan ditzaketan arazoak direla eta, haien semeaz arduratu ezin izan direla antzeman daiteke, eta beraz, hori izango litzateke, protagonista

harreran ematearen arrazoi nagusia. Egun, narrazioari jarraiki, harrerako-familia Josuk izan ditzakeen beharrak asetzen saiatzen dela ikusten da.

5.2.2.3. Josuren kezka

Argi ondorioztatu daiteke familia batetik beste batera aldatzeak eta bizi duen egoerak sentimendu ezberdinak eragiten dituela Josurengan. Familia biologikoa hilabete horretan ezarritako bisitara joan ez izanak, mutikoa bere buruari galderak egiten hasteari ematen dio bide, erantzunik gabeko galderak planteatzeari. Egun batetik bestera familia berri bateko kide bilakatu den haur batek izan ditzakeen pentsamenduei beste gertakari bat gehitu behar zaie, kezkatzeko adinakoa; gurasoak hura ikustera ez joatearen arrazoia zein den ez jakitea. Egoera horrek segurtasun eza eragiten dio Josuri, eta haur batentzat batere eramangarriak ez diren galderak egiten hasten da:

"Bere buruari galdetzen dio ea ezer txarrik gertatu ote zaien, berriro ikusiko ote dituen, auren arazoak konpontzen arituko ote diren, bere gurasoak berarekin haserre ote dauden beste familia batekin bizi delako" (Agintzari SCIS, 2017, 5. or.).

Josu une horretan sentitzen ari den kezka guztiek zaildu egiten diote aurrera egitea eta eguneroko bizitzarekin jarraitzea. Kasu honetan arazo egoera azterketa bat bada ere, asko izan daitezke antzeko egoeran dagoen haur bat galduta, frustratuta edo nahastuta sentitzearen ondorioak. Familiarekin berriz elkartzeko ilusioa bat-batean kentzen zaio haurrari, eta, kasu askotan, eman daitezkeen azalpenik argienak ere ez dira nahiko izaten. Idazleak Josu fase horretatik isilean igarotzen deskribatzen du eta isilune horren atzean, mutikoak sentitzen duen beldurra jartzen du. Ikara hori harrerako-familiak berarekiko izan ditzakeen usteekin lotuta dago.

5.2.2.4. Gurasoentzako orientabideak liburuan

Irakurketa bukatu eta istorioko pertsonaia nagusiaren errealitatea ezagutu ostean, interesgarria bezain aberasgarria izan daiteke irakurleei barne gogoeta bat egiteko aukera eskaintzea.

Liburuaren xede nagusia harrera bizi duten umeez izan ohi dituzten ardura eta zalantzak ezagutaraztea den arren, harrera-familiei haien seme-alabek izan ditzaketan nahaste borrorastea argitzen laguntzeko zenbait irizpide ere jasotzen ditu. Ipuinaren azken

orrietan, gurasoak eta haurrak solasaldi bat abiatzeko galderak eta ariketak aurkitu daitezke (ikus 2.eranskina). Hau, ideiak edota galderak partekatzeko, elkar entzuteko eta emozioak adierazteko lagungarria izan daiteke.

Ipuin honek adierazpen eta komunikazio bitarteko bezala funtzio esanguratsua izan dezakeela iruditzen zait, ume asko istorioan gertatzen denarekin identifikatuta sentitu daitezkeelako. Tresna honi helduaz, haien ardurak, usteak zein ikuspuntuak partekatu ditzakete haien gurasoekin eta, baita alderantziz ere. Sarritan, konplexutasun-maila bateko gaien inguruan hitz egitea zaila izaten da eta, hau, gehienetan, deserosotasuna sentiarazi ohi duten edo azaltzen zailagoak diren gaiekin gertatzen da. Ipuin honek, beharrezkoak diren elkarrizketa horiek abiatzea erraztu dezake, komunikazio giro egoki bat sortzen laguntzarekin batera.

5.3. Bi ipuinak konparatuz

Behin bi ipuinetan ageri diren harrerarekin lotutako adierazleak ezagututa, istorioen arteko alderaketa burutuko da. Kontakizunen irakurketa sakona egin ondoren, aman komunean dituzten alderdiak identifikatu ahal izan dira eta, aldi berean, haien arteko desberdintasunak bilatu. Bietatik atera genezake harrerako-familia ereduaren gaineko informazioa eta harrerako ume askok bizi duten errealitatearen inguruko ondorioztapena.

Aztertu den lehenengo alderdiari erreparatuz gero, bi narrazioetan azaltzen da protagonistak haien harrerako-familiekin bizitzearen zergatia. Usoaren kasuan, Afrika pairatzen ari den gerraren ondorioz, bere herrialdetik ihes egiteko beharra sortzen da, bigarren familia bateko kide izatera igaroaz. *Hau da hau nahaste borrarstea* (Ediciones Beta III Milenio, 2017) ipuinean Josuren familia biologikoaren arazoak direla eta, semea beste familia batekin bizi da. Usoaren liburuan, zehaztasun eta xehetasun gehiagorekin aurkezten zaigu kausa, agian Lehen Hezkuntzako ikasleei zuzendutako nobelatxo bat delako. Bi narrazioetan errepikatzen den patroia horren garrantzia azpimarragarria da, haur bat familia batetik beste batera igarotzea bezalako aldaketa bortitz baten atzean, ia beti, arrazoi bat dagoela ulertzera garamatzalako. Hori izango litzateke harrera ulertzen hasteko argi izan beharreko lehenengo datua eta ipuin hauek datu hori barne hartzen dute.

Bestalde, bi kasuetan protagonistek esperimentatzen dituzten frustrazio, haserre eta tristura emozioak kanpo faktore baten eraginez sortzen dira, barne sentimenduak kanpo eragile baten ondorio dira. Gertaera horiek, ohikotasunaren apurketa dakartzate, pertsonaiengan segurtasun falta eta galdera ugari. Usoa, irakaslearen azalpenak entzun ostean atsekabetuta sentitzen da, hark esandakoarekin ados ez badago ere, hitz gogor horiek pentsarazi egiten diote eta hausnartzera bultzatzen dute. Neskatoaren kasuan, ez da zalantzazko jarrera nabarmenik ikusten, irakaslea oker dagoela argi duelako. Hala ere, kanpotik jasotako nolabaiteko estimulu baten aurrean erreakzio bat agertzen da, tristura litzatekeena. Josuri dagokionez, haren kezken arrazoia gurasoak hilabete horretako bisitara ez joatea da, horrek mutikoak bere burua zalantzan jartzea eragiten du, egoera hori ematearen erruduna bera izan litekeela pentsatzera iritsi arte.

Aurreko ideiarekin zerikusia duen eta bi narrazioetan identifikatu daitekeen hirugarren alderdi bat, eskolaren presentzia da. Familiaren ostean, eskola da haur baten bigarren eragile sozializatzailea, umeen egunez eguna jasotzen duen erakundea da, bertan baitute lekua hainbat egoerek. Testuinguru hau funtsezkoa da bi kontakizunen zentzua bermatzeko, nobeletako prozesu esanguratsuenetarikoak jasotzen dituen espazioa delako. Bi narrazioetan, ordea, ez dira ipuinaren atal berdinak eskolan gertatzen diren gertakariak jasotzen dituztenak. Lehen ipuinean, hau da, Usoarenean, istorioaren zati handiena aipatutako espazioan gertatzen den arren, hasiera eta bilbea izango lirateke eskolarekin lotu beharko liratekeen bi zatiak. Hasieratik, testuingurua aipatzeko beharrik gabe, kontakizuna eskolan kokatzen dela jakin dezakegu, irakasleaz eta hark esandakoaz hitz egiten baitzaigu. Bilbeari dagokionez, hau ere eskolan garatzen dela antzeman daiteke, Usoa irakasleak bere ikasleei eskolatik irten aurretik ematen dien azalpenaren ondorioz mintzen delako. Aldiz, bigarren ipuinean, narrazioaren amaiera da eskolan gertatzen dena, Josuk eztanda egin eta gertatzen denari buruz irakaslearekin hitz egiten duenean. Modu honetan, nobelari bukaera ematen zaio.

Azkenik, bi kontakizunetan aurki daitekeen ezaugarria harrerako-familiaren irudikapena da. Narrazioek, harrerari eta haren esanahiari buruzko informazioa eskaintzen dute, bi kasuetan familia eredugarriak aurkezten zaizkigu, kide berriak zaindu eta babesteko lana betetzen dutenak. Era berean, harrera-familiak haurrak izan ditzakeen beharrak kontuan hartzen saiatzen direla erakusten digute. Horren adibide lirateke Usoak haren bigarren familiari esker babesa eta zaintza izatea eta Josu bisitetara beti bere harrerako

gurasoekin joatea. Horrez gain, bi nobelei esker, familia-aldaketa baten atzean beti dagoela faktore edo kausa bat jakin dezakegu, eta hau kanpo-faktorea (gerra, adibidez) edo barne-faktorea (familia-egonkortasunari eragiten dioten faktoreak, esaterako) izan daitekeela.

6. Haur Hezkuntzako gela baterako diseinatutako esku-hartzea

Nire lan honetarako hautatutako gaiaren inguruko ezagutza eskuratzeaz gain, funtsezkoa bezain asebetegarria izan da niretzat gaia arlo didaktikora eramanda proposamen bat diseinatu eta hura garatzea. Esku-hartze honen garapena modu sakon batean azaltzeko, eranskin bat (ikus 4.eranskina) sortu da, non aplikazio didaktikoaren fase guztien bilakaera deskribatzen den. Proposamena Bilboko itunpeko ikastola batean burutu da hirugarren praktikaldian zehar, zehazki, Haur Hezkuntzako hiru urteko ikasle-talde batean. Ikastola hau euskaldun, eleanitz nahiz berritzaile gisa definitu ohi da eta Haur Hezkuntzatik Batxilergorainoko (2-18) ikaskuntza prozesua jarraitzen du.

Hezigiari taldean zentratuz, hau hogeita sei ikaslek osatzen dute, hamasei neskek eta hamar mutilek, hain zuzen ere. Orokorrean, ikasle-talde parte-hartzailea, langilea eta autonomoa da. Lanean gogotsu aritzen dira ia gehienak, inguruko gauzenganako interes eta jakin-min handia erakusten dute eta ikasteko prestutasuna dute. Edozein planteamendu desberdin edo berriren aurrean, ikertzaile aktiboak dira eta ikasteko grina daukate. Talde handia eta anitza izanda, denetariko izaerak barne hartzen dituen nukleoa da, honek guztiz aberastu duelarik esku-hartzea.

Aplikazio didaktiko honen helburu nagusia, ikasleekin harrera-familia mota ezagutzea izan da, honetarako, ikas-objektu nagusia Patxi Zubizarretaren *Usoa, hegan etorritako neskatoa* (Erein, 2008) liburua izan delarik. Horrez gain, umeekin jarduera desberdinak egin dira, landu beharreko familia mota ulertzen hasi aurretik, familia bera definitzeko. Gailentzekoa da, aukeratutako liburua Lehen Hezkuntzako hezigaiei zuzenduta dagoela, hori dela eta, Haur Hezkuntzako haurrentzat egokitutako tresna literarioa (ikus 7.eranskina) sortzea izan da proposamen honen erronka nagusia. Ipuina eta honen osagarriak familia eredu tradizionaletik at beste familia batzuk ere badirela ulertzeko balioagarriak izan dira eta, batez ere, bi familia desberdinen parte izateak eragiten duen sentimendua azaltzeko. Kontakizuna, istorioa modu egokienean laburbiltzen duten

irudiekin eta testu erraz batekin sortua izan da. Esku-hartzea laburra izan den arren, denetariko emaitzak jaso ahal izan dira, denak denetara ere esangura maila handikoak.

Proposamen honen iraupena astebetekoa izan zen eta bost fasetan bereiztu zen. Lehenengoa, prestaketa-aldia izan zen, honetan, saioak antolatu (jarduerak, edukiak, helburuak eta ebaluazio-irizpideak) eta materialak diseinatu ziren. Bigarren fasea testuinguraketa izan zen, zeinetan ikasleei gaia aurkeztu zitzaien eta honen inguruko jakintzak eta usteak plazaratu ahal izan zituzten. Hirugarren ariketan, haurrentzat familia batek izan beharreko ezaugarriak aztertu ahal izan ziren, honetarako, ekintza manipulatio bat prestatuta. Ikerketaren hirugarren jarduera hau ez zen talde osoarekin aurrera eraman, perfil nahiz izaera desberdineko lau ikasle aukeratu ziren emaitza zehatzagoak ateratzeko xedearekin. Guztion artean familia definitu eta zenbait harrera-familia eredu ikusi ostean, irakurketara iritsi ginen. Laugarren atal honetan, ipuina irakurri, ulertu eta aztertu genuen, hau honela izan zedin, hezigaiei galdera klabe batzuk planteatu zitzaizkielarik. Bukatzeko, jasotako emaitzak kontuan izanda, ebaluazio errubrika baten bitartez, balorazio orokor bat egin zen.

7. Emaitzak eta ondorioak

Lanaren azken puntu honetan, proposamen didaktikoan jasotako emaitzak eta horien gainean eraikitako hausnarketak adieraziko dira, alde batetik, eta gogoeta horietatik nahiz bildutako ikerketaren informaziotik ateratako ondorioak, bestetik. Modu honetan, lan honen ibilbideak izan duen bilakaeraren inguruan hausnartu ahal izango da, zein aldaketa eman diren, zer nolako eragina izan duen ikerketa honek eta hasieran ezarritako helburuak zein puntutaraino bete diren.

Emaitzak

HASIERAKO METAKOGNIZIOAN ESKURATUTAKO ERANTZUNAK	
GALDERAK	ERANTZUNAK
1. Zer da familia bat?	Hezigaiek, hasiera batean, familia etxe berean bizi diren pertsonak osatzen duten talde gisa ulertzen dute.

<p>2. Zer egiten du familia batek?</p>	<p>Ikasle guztiak bat etorri ziren giza talde honen zereginekin, izan ere, zaintzarekin eta afektibitatearekin erlazionatutako hainbat ekintza aipatu zituzten. Honek izan dezakeen esanahia aztertzen jarritz gero, etxean ikus ditzaketen jarrerek uste horretan duten eraginera helduko gara, inguru hurbilean ematen diren jokabideen barnerapena adieraziko lukete erantzun horiek.</p>	
<p>3. Zeinek edo zeintzuk osatzen dute zure familia?</p>	<p>Hezigai bakoitzak haren etxean bizi diren kideak aipatu zituen, baina inork ere ez gainontzeko senitartekoak (aiton-amonak, lehengusuak...). Honek, egindako lehenengo galderaren erantzunera garamatza, norberaren etxetik kanpo bizi diren pertsonekin loturarik ez dugunaren uster.</p>	
<p>4. Gure etxe berean bizi ez diren pertsonak izan daitezke gure familiakoak?</p>	<p>BAI</p>	<p>EZ</p>
<p>5. Amama eta aitona familia dira?</p>	<p>BAI</p>	<p>EZ</p>

Hasiera batean galderari zuzenean ezetz erantzun zioten guztiek. Baina, nik neuk eta ikasle batek edo bestek egindako ekarpenekin, aiton-amonak ere, nahiz eta gurekin ez bizi, familia direla adostu genuen. Horrela ondorioztatu genuen, gure etxe berean bizi ez diren pertsonak ere izan daitezkeela gure familiako kideak. Ildo beretik, ume batek berak beste hiri batean izeba bat zuela esanez parte hartu zuen, ideia hau, aurrekoa indartzeko eta osatzeko baliogarria izan zelarik.

<p>6. Animaliak familia dira?</p>	<p>BAI</p>	<p>EZ</p>
<p>7. Familia bi izan genitzake?</p>	<p>BAI</p>	<p>EZ</p>
	<p>Haurrak arrituta geratu ziren galderarekin eta guztiek ezetz erantzun zuten inolako zalantzarik egin gabe.</p>	

1.taula: Bigarren fasean jasotako haurren erantzunak

Esku-hartzearen hirugarren fasean eskuratutako erantzunak

Emaitzekin jarraituz eta egindako bigarren ariketari helduaz, ikasleek, orokorrean, familia mota berrietan lekuz kanpoko ezaugarriak antzematen ez dutela aztertu ahal izan da. Hala, egun geurea den errealitatea, hein batean, ulertzen eta onartzen dutela adierazten du horrek, haien inguruan dagoen aniztasunaren gaineko kontzientzia izatea eta, era berean, familia kontzeptuaren esanahia, soilik fisikoak ez diren ezaugarriekin lotzeko gaitasuna: “batzuetan horrelakoak garelako” eta “gurasoak eta umea ez dira berdinak, baina beraien umea da” esaldiak, esaterako. Guzti honek, terminoaren ikuspuntu zabalago bat garatzea ahalbidetzen du. Bestalde, erabilitako irudietan islatzen denak arreta berezia deitzen diela baieztatu daiteke, zenbait haur pertsonaien adierazpenean edo jarreran oinarritu baitziren familiatzat har zitezkeen edo ez jakiteko. Honi egingo liekete erreferentzia “irribarre egiten ari direlako” eta “haurra besoetan duelako” bezalako esaldiek. Bi ideia horien atzean, alde batetik, zoriontasunaren balioa dago, familia bat alaia izan behar dela pentsatzea. Eta beste alde batetik, familia bezala definitzeko ondorengoak izan behar direnaren ustea dago, hurbilean bestelako familia motarik ez izatearen ondorioa izan daitekeena.

Behin hezigaiek haien pentsamenduak plazaratu eta partekatuta, literaturaren funtzioa praktikan jarri zen, esku-hartzearen xedearekin zuzenean lotutako *Usoa, hegan etorritako neskoa* ipuinarekin. Nobelatxoa Haur Hezkuntzako ikasleentzat doitu zen,

haien ulermen mailara egokitutako hiztegia eta istorioa guztiz errepresentatzen zuten ilustrazioak diseinatuz.

IPUINAREN INGURUAN EGINDAKO GALDEREN ERANTZUNAK	
GALDERAK	ERANTZUNAK
1. Zein da Usoa?	<p>Pertsonaia deskribatu zuten gehienek, honetarako irudietan ikus zitezkeen ezaugarrietara joaz. Baina, ikasle batek, protagonistak hark egunerokotasunean egiten dituen ekintza berdinak egiten zituela esan zuen. Ekarpenean horrek, ipuineko pertsonaiaren sinesgarritasuna bermatzen du eta, era berean, errealitatera hurbiltzen ditu umeak.</p>
2. Zergatik etorri zen Afrikatik Euskal Herrira (Bilbora)?	<p>Usoa familia berri batekin bizitzera joan izanaren arrazoiak bakarrik egotea eta guraso gabe geratu izana zirela erantzun zuten. Protagonista txikia izanik, gurasoekin egon behar zuela adierazi zuten eta horregatik zituela beste guraso batzuk.</p> <p>Edozein umeri atxikitzen zaion babesaren garrantzia ikus daiteke erantzun horretan, erabat ulergarria iruditu zitzaion protagonistak bakardadearen aurrean, beste familia batengana jotzea.</p>
3. Bilbon norekin bizi da?	<p>Ipuinean azaldutako pertsonaia guztien izenak izan zituzten gogoan eta banan banan izendatu zituzten; ama Oihane, aita Peru, neba txikia Unai eta txakurra Kai. Detailerik txikienean ere arreta zein puntutaraino jartzen duten islatzen du horrek. Pertsonaiei izena ematea, hauenganako gertukotasuna eratzeko modu bat ere bada, batez ere ikasle txikiekin lan egiteko orduan.</p>
4. Usoa nola sentitzen dela uste duzue?	<p>Gehiengoari, protagonistarentzat aldaketa hori pozik egoteko arrazoia iruditu zitzaion, baina zenbait hurrek Afrikako familia bertan utzi izanagatik triste ere egon zitekeela eztabaidatu</p>

	zuten. Hemen, ikuspuntu ezberdinak antzeman daitezke, agurren aurrean izan ditzaketen bizipenak edo zuzenean ondorioa (kasu honetan familia berria ezagutzea) lehenestea.
5. Zenbat familia ditu Usoak? Zein edo zeintzuk?	Guztiak etorri ziren bat kopuruan, bi familia zituela azaldu zuten eta zeintzuk ziren aipatu ere egin zituzten, Afrikakoa eta Bilbokoa.

2.taula: Laugarren fasean ikasleek emandako erantzunak

Ondorioak

Orain arte aipatutako guztiaz gain, ikerketa hau gauzatu ahal izateko bildutako informazio zientifikoa eta proposamenaren emaitzak batzen baditugu, literaturaren berezko indarra praktikan jarri ostean, honen funtzio didaktikoa frogatu dela baieztatu genezake. Ipuinak, ikas-tresna bezala duen funtzioa, hurrek inguratzen dituen errealitatea ezagutzeko eta mundua ulertzeko bitarteko gisa jardutea da. Azaltzen konplexuak izan daitezkeen gaiak ikasleekin lantzeko, zehazki haientzat sortua izan den baliabide honek izango du denetan esanahi handiena. Abian jarritako proposamen honen bidez aztertu ahal izan denez, jorratu nahi izan den gaiaren ezaugarriak biltzen dituen ipuin bat hautatuta, haur talde batentzat guztiz arrotza zen ideia batera hurbilpena eman da. Horrela, ikasleek kontakizunean eskaintzen den harrerari buruzko zenbait alderdi ezagutu eta ulertu ahal izan dituzte. Alderdi horiek, ikasleen ulermen-gaitasunera egokituak izan direnak, haur batzuk haien familia biologikoarekin ez bizitzearen edo bi familia izatearen zergatia ezagutzeko lagungarriak izan dira. Horrez gain, ikerketa honek, ikasgelan bertan dagoen familia aniztasunaz hitz egiteko eta jabetzeko tartea ere eskaini die umeei, bakoitzak bere inguru hurbila osatzen duten kideak aurkeztu ahal izan dituelako, eta horrela, familia guztietan aurkitu daitezkeen (animalia bat izatea, neba edo arreba bat izatea...) desberdintasunetaz konturatu.

Lortutako emaitza batzuetan (bi familia izatea posible den galderaren erantzuna, adibidez) ikus daitekeenez, esku-hartzearen hasieran, klasea bat zetorren bi familia izan ezin direnaren ideiarekin. Proposamenaren hiru faseak egin ondoren, eta batez ere, behin ipuina barneratuta eta irakurrita, pentsamendu hori aldatu egin dela ikusten dugu. Istorioan Usoari gertatzen zaiona ikusten dute hezigaiek, bakarrik geratzen den haur

baten egoera ulertzen dute, haren tokian jarri eta pertsonaiak beste familia batekin bizitzeko duen premia aipatzen dute. Hemen enpatiazko jokabidea nabarmentzen da, berdinen lekuan jartzeko gaitasuna. Honekin batera, sentimenduen adierazpena ere azpimarratzekoa da, zenbait ikasleren ekarpenek, protagonista bere Afrikako familiarengandik banatzeagatik goibel sentitu behar dela uste dutelako. Berdinen arteko interakzio honetatik ondorioztatu daiteke bigarren familia bat izatearen beharraren ulermena eta atzean beste familia bat uzteak eragin ditzakeen sentimenduen gaineko gogoeta.

Bestalde, Patxi Zubizarretaren *Usoa, hegan etorritako neskatua (Erein, 2008)* liburua harrerako-familia eredu lantzeko hainbat gako jasotzen dituen materiala dela uka ezina da. Ipuinak, familia batetik beste batera igarotzearen atzean ematen dena azaltzen du, aldaketa horrek nola eragiten duen egoera hori pairatzen duen pertsonarengan eta nola sentitu gaitezkeen bi familia desberdinen parte. Narrazioari esker aztertu daitezkeen alderdi guzti hauek ikasleek lehen irakurketa egin ondoren atera ahal izan dituzten ondorioei eman die bide. Umeei eskuratutako ideia horiek haien pentsamenduaren oinarria izango diren arren, ondorengo irakurketak ezinbestekoak izango dira eskema mentalak osatzeko. Kontuan hartuta etapa honetarako zehazki sortutako materiala esku-hartzea gauzatu den ikasle-taldearentzako (eta ondorengo haurrentzako) baliabide bihurtu dela, ikasleak irakurketa bakoitzetik informazioa zein modutan eskuratzen joango diren ikustea interesgarria litzateke.

Bukatzeko, jakina da harrera-familia mota gero eta hedatuagoa dagoela gure gizartean. Hala ere, oraindik, sarritan, adopzioa eta harrera berdintzat jotzeko ohitura dago. Adopzioari buruzko liburu anitz aurkitu ditzakegun bitartean, harrera gai gisa eskaintzen duen literatura murriztagoa da. Gero eta haur gehiagok bizi dute prozesu hori edo antzeko familia-egoera bat, eta beraz, garrantzitsua da hauei kontakizunak eskaintzea, pertsonaiekin identifikatuta sentitzeko aukera ematea eta gizarteak haiek ulertzetik hurbilago egoteko nolabaiteko tresnaren bat izatea. Harrerari buruzko ipuin ezberdinak aukeran izateak, kasu honetan, haurrei zein familiei lagundu diezaieke bizitzen ari direna ulertzen eta senideen arteko komunikaziorako bitartekoa ere izan daiteke. Beraz, asebetegarria izan da familia eredu horren errealitatea bistaratzen duten bi liburu aurkitzea eta horiek ikertzea. Niri dagokidanez, txikitan eskertu izango nukeen nire sentimenduak eta pentsamenduak islatzen zituen ipuinen bat esku artean izan banu.

8. Erreferentzia bibliografikoak

237/2015 DEKRETUA, abenduaren 22koa, Haur Hezkuntzako curriculum zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa. (EHAA, 9, 2015ko abenduaren 22an). <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2016/01/1600142e.pdf>

Agintzari SCIS. (2017). *Hau da hau nahaste borrastea*. Ediciones Beta III Milenio.

Aguado, L. (2010). Familia ereduak gaurko eskolan. *Tantak. EHUko Hezkuntza Aldizkaria*, 22(1), 127-148.

Arce, A. (2020). Literaturaren garrantzia eskoletan. In Kortazar, J. eta Fernández de Gamboa, K. (zuz.), *Gizartea eta Artea haur eta gazte literaturan 6* (88. or.). Erroa Argitaletxea.

Blanco, L. (2015). *La Familia en la Literatura Infantil y Juvenil/A Familia na Literatura Infantil e Juvenil* (2013). de Ana Margarida Ramos e Carmen Ferreira Boo (eds.). (Iruzkina). *Elos: Revista de Literatura Infantil e Xuvenil*, 2, 16.

Delgado, B. (1998). *Historia de la infancia*. Ariel educación.

Euskaltzaindia. (online). *Literatura terminoen hiztegia*.

https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_xslt&view=frontpage&layout=lt_h_detail&Itemid=474&search=literatura#290

Fernández, C. G. (2010). El cuento como recurso didáctico. *Innovación y experiencias educativas*, 26, 1-9.

Gallego, N. (2015). *Familia y literatura infantil: Nuevos modelos para una nueva literatura*. (Trabajo Fin de Grado). Universidad de Sevilla, Sevilla.

García, M. (2012). Y vivieron felices para siempre: literatura infantil para niñas y niños adoptados. *Afin Newsletter*, (42), 1-4.

<http://hdl.handle.net/11441/37030>

Kortazar, J. (zuz.). (2016). *Gizartea eta Artea haur eta gazte literaturan 2*. Erroa Argitaletxea.

López, J. M. eta Etxaniz, X. (2011). *Egungo euskal haur eta gazte literaturaren historia*. Euskal Herriko Unibertsitatea.

Martín-Cala, M., Tamayo-Megret, M. (2013). Funciones básicas de la familia. Reflexiones para la orientación psicológica educativa. *EduSol*, 13(44), 60-71.

Meza, J.L. & Milena, R. (2016). Familia, escuela y desarrollo humano. *Rutas de investigación educativa*, 1, 18.

Morón, M. C. (2010). Los beneficios de la literatura infantil. *Revista digital para profesionales de la enseñanza*, 6, 1-4.

<https://www.feandalucia.ccoo.es/andalucia/docu/p5sd7247.pdf>

Muñoz, A. (2005). La familia como contexto de desarrollo infantil : dimensiones de análisis relevantes para la intervención educativa y social. *Portularia*, 5(5), 147-163.

Poveda, D.; Jociles, María Isabel; Rivas, Ana M^a. (2011). Monoparentalidad por elección: procesos de socialización de los hijos/as en un modelo familiar no convencional. *Athenea Digital. Revista de Pensamiento e Investigación Social* [en línea], 11(2), 133-154.

Rodríguez Díaz, C. (2021). *Investigación sobre Percepción de la sociedad hacia la familia y los nuevos modelos de familia*. (Trabajo Fin de Máster). Universidad de La Laguna (Tenerife), Departamento de Ciencias de la Comunicación y Trabajo Social.

<https://riull.ull.es/xmlui/bitstream/handle/915/23124/Investigacion%20sobre%20Percepcion%20de%20la%20sociedad%20hacia%20la%20familia%20y%20los%20nuevos%20modelos%20de%20familia.pdf?sequence=1&isAllowed=y>

Villa, J. (2022). Un estudio de la familia en la literatura. *Papeles salmantinos de educación*, 26, 149-162.

Zubeldia, I. (2000). Haur eta gazte literatura euskaraz. *EGAN*, 53(3-4), 151.

Zubizarreta, P. (2008). *Usoa, hegan etorritako neskatoa*. Erein.